



**Herri-komunikazioa eta sarea.  
Esperientzia bat: uztarria.com**

**Software libreari buruzko II. euskal mintegia**  
Josu Azpillaga, Azpeitian 2002ko azaroa

# AURKIBIDEA

1	<a href="#">SARRERA</a> .....	3
2	<a href="#">UZTARRIA.COM, UZTARRIAREN KOMUNIKAZIO PROIEKTUAREN BAITAN</a> .....	3
3	<a href="#">SAREAN LAN EGIN, SAREA OSATU ETA APROBETXATU: UZTARRIA, DINAMIZATZAILEA</a> .....	4
4	<a href="#">DINAMIKOA, ERABILI-ERRAZA, ARINA, MERKEA: SOFTWARE LIBREA, ZOPE</a> .....	5
5	<a href="#">MARTXAN JARTZERAKO, ZER?</a> .....	5
6	<a href="#">EZAUGARRIAK</a> .....	6
7	<a href="#">AZTERKETA BAT, A POSTERIORI. ONDORIOAK</a> .....	7
8	<a href="#">AURRERA BEGIRAKOAK</a> .....	8
9	<a href="#">AGURRA</a> .....	8

# 1 SARRERA


Mintegi hau software libreari buruzkoa izan arren, ni (halaxe eskatu didate-eta), software librearekin egindako aplikazio bati buruz arituko naiz. Proiektua nondik sortu zen, nola garatu, eta atera ditugun ondorioak zeintzuk diren laburbilduz.

Hain zuzen ere, herri-komunikazioaren baitan garatu dugun proiektua azalduko dizuet: uztarrria.com. Webgune hau, urte honen lehen egunean bertan jarri zen martxan.

## 2 UZTARRIA.COM, UZTARRIAREN KOMUNIKAZIO PROIEKTUAREN BAITAN

Uztarrria.com, Azpeitiko Uztarrria Kultur Koordinadoraren komunikazio adarreko proiektu bat da. Komunikazio adar horretan, urte hasierara arte, beste produktu batzuk genituen: herri-aldizkaria (izen berdinekoa), eta liburuxkak ateratzen hasi berriak ginen.

Baina hutsune nabarmena somatzen genuen egunerokotasuna lotutako informazio lantzeko orduan. Hutsune hori (eta beste batzuk), grafiko honetan nabarmen ikusten dira:




Izan ere, konturatzen ginen hutsune hori zela-eta, hileroko aldizkaria ere bortxatu egiten genuela egunerokotasunari lotutako informazioak emanez. Ez da naturala hilean behin ateratzen den euskarrian, bigarren egunerako zaharkituta dagoen albiste argitaratzea, ez albiste ikuspegi hutsetik argitaratzea behintzat (agian beste estilo batean argitaratu badaiteke ere). Eta hori, egin, egiten genuen.

Beraz, galdera garbia zen: nola landu egunerokoari lotutako informazio hori?

Eta erantzuna, agian konbentzimenduz baino gehiago eliminazioz egin genuen: irratia eta telebista oso garestiak dira, momentuz iritsiezinak guretzat. Papera ere, egunero-egunero atereaz gero, oso garesti ateratzen da. Beraz, zergatik ez sarean? Eragin txikiagoa izango du, klaro, baina saia gaitezen.

Zera erabaki genuen: kendu diezaiogun aldizkariari egunerokotasun ukitu hori, egin dezagun “aldizkariago”, eta saia gaitezen hutsunea Interneten osatzen. Mentalki, honako eskema osatuz:




Beraz, pauso hori ematea erabaki zen, batik bat eguneroko hutsune hori betetzeko asmotan. Noski, lana eginez gero, aldizkaria eta liburuxkak eta bestelako materiala ere sarean jarriko genuen, baina hori, bigarren mailako zen guretzat.

### 3 SAREAN LAN EGIN, SAREA OSATU ETA APROBETXATU: UZTARRIA, DINAMIZATZAILEA

Baina, Interneten sartu behar bagenuen, Internetera egokitu behar genuen. Alegia, sarearen ezaugarriak geureganatu eta aprobetxatu behar genituen: eta ezaugarriarik behinena, guretzat behintzat, sarean lan egiteko ahalmena eskaintzea da. Jendeari, bestelako partehartze mekanismoak ematea. Herri-informazioan ere bai? Beno, zergatik ez.

Horrek ez du esan nahi Uztarriaren papera desagertzen zenik. Keba. Bestelako itxura hartzen zuela bai, dinamizatzailearena. Marrazki batekin adierazteko, nik honakoa jarriko nuke:



Alegia, uztarriak dinamizatzaile lana egin behar du, kuerda ematekoa. Eta gainerako taldeak, norbanakoak, interesatuak oro har, erakarri informazioa trukatzeko tresna horretara. Horrela lortuko dugu komunikazio-tresna erakargarria izatea.

Eta kuerda emateko moduak asko izan daitezke. Eta behar baino gutxiago egingo genituen, noski:

- Albisteak eta informazioa Uztarria berak sartzea (batik bat besteek sortua ez denean, eta kasuala denean)
- Taldeekin eta jendearekin lana eginez, hitz eginez, aurkeztuz.
- Parte-hartzeak txalotuz, filosofia esplikatuz,...

Informazio sortzailea informazio ematera gonbidatu nahi genuen, beti gure zain egon gabe. Izan ere, askotan ez baikara iristen denera, eta errua beti guregain erortzen baita. Orain, tresna bat eman nahi genien, gure “beharrik” gabe informazioa zabaltzeko.

Sarean lan egiteko modua, lan horrekin denok irabaztea omen da (Alfons Cornella, infonomia).

#### **4 DINAMIKOA, ERABILI-ERRAZA, ARINA, MERKEA: SOFTWARE LIBREA, ZOPE**

Baina, nola lortu sarean lan egiteko tresna egokia?

Zerbait dinamikoa, arina (instalazio aldetik, prestakuntza aldetik...), erabiltzeko erraza, merkea?

Kasualidadez, *bagera.net* ezagutu genuen orduan, eta hango zenbait funtzionalidade gustatu zitzaizkigun. Bagenekien beste mila modutara gara zitezkeela, baina ez ginen ausartzen (nik ezagutzen nuen moduan, asp orriekin, beldurra ematen zidan halako bat garatzen hasteak).

Bagera-ko orriari begira, zope, squishdot... ezagutu, aproba batzuk egin, eta aurrera. Gune errazak egitea, oso-oso erraza da, eta azkarra! Gainera, software librea...

Nik ez dut esango besteak baino hobea denik, azkarragoa, errazagoa, indartsuagoa... Ez, ez. Egia esan, casualidadez egin genuen zope-n, *bagera.net* guk eztabaida hori bizi genuelarik ikusi genuelako. Beste guneren batean fijatu baginen, eta beste moduren batean egindakoan, akaso bestela irtengo zuen. Baina zope zaila eta pisutsua izan balitz ere ez zuen irtengo.

Beraz, egindako softwarra hartu, jeitsi, instalatu, probak egin... eta aurrera.

#### **5 MARTXAN JARTZERAKO, ZER?**

Baina, sarean lan egin... hori guztia nola lortu? Webgunea publikatuta bakarrik?

Guk, alde horretatik, bagenuen abantaila txiki bat: Uztarria, kultur koordinadora da (ia 20 kultur talde biltzen ditu bere baitan) eta talde guztiei aurkeztu genien ataria publikatu aurretik, helburuak zein zituen azalduz. Batzuk erabili dute; besteek ez.

Bestalde, taldekideok ere propaganda eta ahoz-ahoko lan dezente egin dugu. Herri txikia da gurea, eta batzuk mugitzea lortuz gero, eta atzetik besteak etortzen dira.

Aldizkaritik publizitate pixka bat ere egin zaio, baina ez moduloak sartuz, ez. Webgunean sortzen zen informazioa egokitu eta aldizkarian sartu da askotan. Adibidez, eztabaida interesgarriren bat egon denean, hori aldizkarian jarri da. Alde horretatik, webgunea eta aldizkaria ez dira bi komunikabide aparteak, autoelikatzen direnak baizik.

Bestelako ekitaldiak antolatu direnean ere, sarea lanabes bezala ikusi eta aprobetxatu dugu. Adibidez, porra antolatu zenean, emaitzak sarean jartzen ziren... eta sarean bakarrik egunero-egunero. Hori guretzat ere abantaila baitzen, lan gutxiago ematen zuenez.

## 6 EZAUGARRIAK

Labur-labur, webgunearen atalak deskribatuko dizkizuet, ondorioak eta geroko azterketa ulertzeko balioko baitute.

The screenshot shows the homepage of 'uztarria.com' with the date 'Azarrik 21, OSTEGUNE'. The main navigation bar includes 'AGENDA', 'ALDIZKARIA', 'EZTABAIDAK', 'INKESTAK', 'TALDEAK', 'ALDIZKARIA', 'ZIBERARTXIBOIA', and '114'. The main content area features several articles:
 

- Asfebueran ospatuko du Santa Zezilia eguna Udala Musika Bandak**: Article about a music band performance on November 22nd.
- Itsasiren LEHENA ORAINA ETA GEROA Izarraitz pilotalekuan**: Article about a pilotage competition in Izarraitz.
- Eskola kontserjerako plaza bat lehiaketara aterata da**: Article about a competition for a school conservator position.
- Elizbarrutiak Martuteneko espetxeratuentzat hainbat produktu bilduko ditu**: Article about religious communities collecting products for prisoners.
- Nerabezeroan seme-alabak dituzten gurasoentzat hitzaldiak 'Gurasoen Topagunean'**: Article about talks for parents in a support group.
- Herriko zazpi gazteren aurkako enaketa**: Article about a competition for seven young people.


 The right sidebar contains an 'AGENDA' section with dates and events, and a 'ZIBERARTXIBOIA' section with a search bar and categories like 'Agenda', 'Aldizkaria', 'Eztabaidak', etc.

- **Azken orduko albisteak.** Ohiko weblog bat, herriko informazioarekin. Erantzunak emateko aukera, geroago jarri zen martxan, partehartze dezentearekin.
- **Agenda.** Herriko agenda partikularra. Egunean-egunekoa nabarmenduz.
- **Eztabaida.** Uztarriak gai bat planteatzen du, herrian pil-pilean dagoena, eta eztabaida edo foro normal bat da.
- **Herriko taldeak.** Talde bakoitzari orri bat eman diogu bere historia, deskribapena, eta antzekoak sartzeko. Guk kudeatuta.
- **Inkesta.**
- **Herri-aldizkaria.** Aldizkaria, oso-osorik sarean.
- **Ziberartxiboa.** Uztarriako liburuxkak, eta pixkanaka-pixkanaka bestelako materiala sartzen joan gara.

Baina, falta zaizkigu, noski.

## 7 AZTERKETA BAT, A POSTERIORI. ONDORIOAK

**Zenbat jende dabil?**



Eboluzioa ikusteko, hona hemen eguneroko bisita kopurua eta asteroko batez-bestekoa. Ondorioak: asteburutan jende gutxiago dabil, eta abuztuan oso gutxi.

Datu zehatzak emateko, azaroan 5300 hits/eguneko, 670 bisita/eguneko, eta orri kopuruak kalkulatzeko arazo teknikoak ditugu.

**Zenbat jendek hartzen du parte?**

- Lan eguneko, batez-beste, 2 albiste. Horietatik %60a inguru Uztarriak sartutakoak.
- Erantzunak, 400 inguru (martxan jarri zenetik, egunean 2 inguru)
- Eztabaidak, batzuk oso partehartze altua. Besteek, kale.

**Zein atal dira bisitatuena?**

Ondorio argiak izanik ere, hona hemen:

- Dударik gabe, dinamikoak ikusten dira gehiena. Albisteak, eztabaidak, eta agenda.
- Jendeak saltsa nahi du: norbanakoen arteko eztabaidek, jarraipena handia dute.
- Aldizkariak ere orri mordera ditu, eta bisitak ditu. Baina orriko bisita kopurua askoz baxuagoa da.
- Aldizkariak eta ziberartxiboa, albisteekin lotura egiteko erabiltzen dira askotan, kontsulta modura (artxibo funtzioa).
- Google oso inportantea da, eta hortik sartzen da jende asko orri estatikoagoetara.

## 8 AURRERA BEGIRAKOAK

Eta, hemendik aurrera zer?

- Esan dugu, sarea osatzeari garrantzi handia ematen diogula. Bada, hor lan haundia dugu egiteko, eta ez webgunearen bidez bakarrik. Zenbait talde, jende eta abar erakarri behar ditugu oraindik atarira.
- Ikusgarritasun pixka bat gehitu. Argazkiak sartu.
- Interneten ezaugarriak aprobeztatu. Eta ezaugarri horietan, ez al da multimedia ezaugarria ere sartzen? Zer egin dezakegu hor? Ahal dela, multimedia aplikazio txikiak sartu nahi ditugu albisteen osagarri.
- Anonimoen kontua arautu, zuzendu, nola? Konponbidea finkatu.
- Diru-iturri alternatiboak landu.

## 9 AGURRA

Besterik ez.

Nik, gure esperientzia kontatu dizuet, bere xumean. Aproba egiteko erabakia hartu genuen, artean guretzat nahikoa ezezaguna zen medio batean, esperimentatzekoa. Gauza batzutan asmatu dugu, eta beste batzutan hanka sartu ere bai.

Gurea bezalako talde txiki batentzat esfortzu dezentea egin zen -eta egiten da, oraindik-, artean diru-iturriak finkatzeko genituela, langile-erdia aurreikusiz-eta horren aldeko apostua eginez.

Harritura gelditu gara, gertuko informazioak sarean duen harreraz. Albokoaren berri Internet bidez jakitea, kontraesankorra dela dirudi, baina modu egokian eginez gero, balekoa deritzogu. Eta modu egokia, Interneten berak erakusten digu: sarean, eta bixkor.